



UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN EREMUAN BIDERATZEN DIREN SOLIDARITATE KANPAINAK ETA EGITASMOAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2015EKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ETA OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Urola Kostako Udal Elkarteak, erakunde eta herri administrazio denez, bere egiten du dagokion gizarte erantzukizuna eta, zehatzago esateko, giza eskubideen alorrean duena. Halaber, helburu horrekin, irabazi asmorik gabeko elkarteekin egiten du lan.

Hori horrela izanik, gaia aztertu eta Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 2015ko martxoaren 24ko bilkuran honakoa erabaki zuen: 2015eko diru-laguntza deialdia egitea, gerra, zoritxar, ezbehar edo larrialdi egoeran dauden leku, lurralde edo herrialdeetako pertsoneri lagundu eta leku horietako haurrak udan egonaldia egiteko Urola Kosta eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) familietara ekartzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzat.

OINARRI-ARAUAK

I. XEDEA

1. artikulua.

Oinarri hauen helburua da gerra edo larrialdi egoeran dauden herrialdeetako haurrak udan egonaldia egiteko ekartzen dituzten Udal Elkarteko udalerrietako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) irabazi asmorik gabeko elkartei eta egoitza Udal Elkartean ez izan arren haurrak Urola Kostako eskualdera ekartzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkartei 2015ean diru-laguntzak emateko deialdia eta arauak finkatzea.

2. artikulua.

Oinarri-arauok behar bezala zabaldu eta ezagutarazteko, oso-osorik argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Urola Kostako Udal Elkarteko iragarkien taulan.

II. DIRU-ATALA

3. artikulua.

Diru-laguntza programa honek 18.500,00 euroko kopurua emango du diru-laguntza bidez 2015ean. Diru hori 2015eko aurrekontu orokorretik ordainduko da.

III. ONURADUNAK

4. artikulua.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute haurrak eskualdeko udalerrietako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) familietara ekartzea helburu duten irabazi asmorik gabeko erakundeek.

Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak 2011ko urriaren 10eko bilkuran erabakitakoaren haritik, diru-laguntza programa honek indarrean dagoen legegintzaldian lehenetsi egingo ditu Saharako



haurrak eskualdeko familietara ekartzeko egitasmoak. Hori horrela izanik, programa honi atxikitako kopurua bi multzotan banatuko da:

1. 9.500,00 € Mendebaldeko Saharako haurrentzat bideratutako egitasmoentzat
2. 9.000,00 € bestelako programa eta egitasmoentzat

Ez dira onuradun izango inola ere diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluko egoeraren batean dauden elkarteak.

IV. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

5. artikulua.

Eskabidea oinarrion eranskin gisa datorren ereduaren arabera egingo du elkartearen legezko ordezkariak.

Eskabidea egiteko eredu eta gainerako eranskinak eskura daude Udal Elkartearen webgunean (www.urolakosta.org) eta Udal Elkarteko Idazkaritzan (tel. 943890808).

6. artikulua.

Eskabideak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen egoitza nagusian (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 8:00etatik 15:00etara. Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna balitz, azken eguntzat hurrengo laneguna hartuko litzateke.

V. AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

7. artikulua.

Eskabidea I. Eranskinaren arabera egingo da, eta eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztuko dira:

- a) Elkartearen ordezkari edo erantzulearen NANren fotokopia.
- b) Elkartearen IFKren kopia, eratzeko eskrituraren kopia, estatutuen kopia eta dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Memoria, diru-laguntza eskatzeko aurkezten den egitasmoaren berri ematen duena. Honakoak adieraziko dira gutxienez: helburuak eta interesa; egitasmoaren edukia eta jarduerak; baliabideak (giza baliabideak eta bitarteko materialak); kronograma; eta, arduradunak. II. Eranskinaren arabera.
- d) Gastu eta sarreren aurrekontu zehatza. Gastu eta sarreren aurrekontuan egitasmoaren gastu eta sarrera guztiak adieraziko dira, baita elkarteak egitasmo hori bideratzeko egindako diru-laguntza eskabide guztien zerrenda ere.
- e) Zinpeko adierazpena, elkarte horrek egitasmo hori bideratzeko egindako diru-laguntza eskabide guztien berri ematen duena, honakoak adieraziz: diru-laguntza eskabidearen egoera (erantzunaren zain, baztertua, onartua eta, horrela balitz, kopurua). Diru-laguntza eskabiderik egin ez bada, ez dela egin adierazten duen zinpeko adierazpena.
- f) Zinpeko adierazpena, elkarteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, diru-laguntzei buruzkoaren, 13.2 artikuluko egoeraren batean ez dagoela adierazten duena.



- g) Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta dituela egiaztatu behar du.

Udal Elkarteak, ebazpen osatuago bat ematearren, dokumentazio gehiago eska lezake egin nahi den ekintzaren arabera.

Eskatzaileak Urola Kostako Udal Elkarteari antzeko eskabiderik egin badio aurreko bi ekitaldietan, a) eta b) zatietako agirien orde zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du (III. Eranskineko ereduaren arabera).

8. artikulua.

Eskabideak edo harekin batera doazen agiriek akatsen bat baldin badute edo osatu gabe baldin badaude, 10 laneguneko epea izango dute interesdunek akatsa zuzentzeko, Udal Elkartearen ohartarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta akatsa zuzentzen ez bada, eskabidea baztertu egingo da.

VI. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO AKORDIOA

9. artikulua.

Balorazio Mahaia eskabideak aztertu eta diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Lehendakartzari, eta horrek diru-laguntzak emateko ebazpena onartuko du.

Honela osatuko da Balorazio Mahaia:

- Lehendakaria: Urola Kostako Udal Elkarteako lehendakaria.
- Mahaikideak: Zuzendaritza Batzordeko kide bat eta Udal Elkarteako 2 sail arduradun.
- Idazkaria: Urola Kostako Udal Elkarteako idazkari-kontuhartzailea.

10. artikulua.

Diru-laguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu egingo da, deialdiaren oinarri-arauotan ezarritako irizpideen argitara. Erabaki hori jakinarazi egingo zaie interesdunei. Diru-laguntza emateko akordioan honakoak adieraziko dira: onuraduna, objektua, diru-laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko epeak eta diru-laguntza justifikatzeko era eta epea (akordioan berariaz besterik esaten ez bada justifikazioa diru-laguntza emandako ekitaldian egingo da). Diru-laguntzak emateko erabakietan 10 laneguneko epea emango zaie onuradunei, adierazi dezaten onartu dutela, eta onartutzat joko da epe horretan onuradunak besterik adierazi ezean.

11. artikulua.

Erabakia hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, deialdi honetan adierazten den eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita. Epe hori igarotakoan, berariazko erabakirik ematen ez bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da.

VII. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

12. artikulua.

Diru-laguntza emanez gero, onuradunak honako betebeharrak ditu:



- a) Egitasmoa burutzea eta ezarritako helburuak betetzea.
- b) Diru-laguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.
- c) Programa bukatzean, azalpen memoria bat aurkeztuko da programaren garapen, burututako ekintza eta lortutako helburuei buruzkoa (IV. Eranskineko ereduaren argitara). Memoriarekin batera, bestalde, jatorrizko fakturak eta kopiak aurkeztuko dira egiaztatzeko. Egiaztatu eta gero, jatorrizkoak elkarteari itzulizko zaizkio eta kopiak Urola Kostako Udal Elkartearen esku geldituko dira.
- d) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak eta kontrol ekonomikoko jardunak onartzea eta eskatutako informazioa eta argibideak ematea.
- e) Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezten.
- f) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adieraztea Urola Kostako Udal Elkarteak diruz lagundu duela.
- g) Egitasmoaren garapenean gertatutako gorabeherak Udal Elkarteari jakinaraztea, egitasmoaren izaera eta funtsa aldatzen badute. Jakinarazpena egingo da aldaketak gertatu eta berehala, eta, beti, jasotako diru-laguntzen justifikazioa egin aurretik. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, diru-laguntza emateko akordioa aldatu egin daiteke.
- h) Diru-laguntza zurrizko agiriak aurkeztea.

Onuradunak aipatutako betebeharrak horiek betetzen ez baditu, diru-laguntza bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko du.

VIII. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

13. artikulua.

Oinarri hauen 4. artikuluan finkatutakoaz gain, eskabideak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- ✓ Egitasmoaren interesa.
- ✓ Egitasmoaren bideragarritasuna eta eragina.
- ✓ Elkarteak eginiko sentsibilizazio lana, egitasmoa dela eta.
- ✓ Eskualdera ekartzen diren haurren kopurua.
- ✓ Egitasmoa bideratuta dagoen haurren egoera eta baldintzak.


IX. DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEN ZENBATEKOA

14. artikulua.

Diru-laguntza 4. artikuluan adierazitakoaren arabera banatuko da.

Dena dela, lehen multzoko egitasmoekin multzo horrentzat ezarritako kopuru osoa banatzen ez bada, soberakina bigarren multzoko egitasmoak diruz laguntzeko erabiliko da, eta alderantziz gertatuz gero, irizpide berdina jarraituko da.

Bestalde, behin egitasmoa bukatu eta soberakina izanez gero, herri hauen alde egindako bestelako proiektuetara ere bideratu ahal izango da dirua.



X. ALDI BEREAN BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEKO AUKERA ETA FINANTZAKETA MUGAK

15. artikulua.

Beste diru-laguntza edo diru-sarrera batzuk eskuratuz gero, muga ezartzen da izandako gastuaren %100ean, hau da, ezin da inoiz gainfinantzaketarik izan Udal Elkartearen diru-laguntzarekin.

Beraz, diru-laguntzaren bukaerako ordainketan edo likidazioan, Udal Elkarteak benetan izandako gastuak eta diru sarrerak ikusi eta gero, ordaindu beharreko kopurua zuzenduko du, horrela badagokio, gainfinantzaketarik ez izateko, eta zuzenketaren ondorioz dagokiona emango dio onuradunari, edo, aurrerakinetik dagokion zatia itzultzeko eskatu, horrela badagokio.

Diru-laguntza konkurrentetzat joko dira beste administrazioek, erakunde publikoek edo pribatuek emandakoak.

XI. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA ETA EPEAK

16. artikulua.

Diru-laguntza ordainduko da bi zatitan:

- Onartu den kopuruaren %70, aurrerakin gisa, diru-laguntza ematea onartu eta hilabeteko epearen barruan, diru-laguntza emateko erabakia hartzen den egunetik kontatzen hasita.
- Gainerako %30, diru-laguntzaren likidazioa organo eskudunak onartu eta gero, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena aurkeztu eta gero.

XII. DIRU-LAGUNTZA ZURITZEKO EPEAK ETA ERA

17. artikulua.

Diru-laguntza zuritzeko agiriak egitasmoa amaitu eta bi hilabeteko epean aurkeztu behar dira, onuradunak finkatutako amaierako datatik kontatzen hasita. Nolanahi ere den, diru-laguntza zuritzeko agiriak beranduenera azaroaren 30a baino lehen aurkeztuko dira. Honako agiriak aurkeztu behar dira (IV. Eranskineko ereduaren arabera):

- Egindakoaren berri ematen duen memoria edo txosten zehatza.
- Gastu eta sarreren balantze zehatza eta diru-laguntzaren kopuruaren adinako gastuen jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak. Gastuak elkartearen langileenak baldin badira, aurkeztu behar dira langile horien lan-kostuak egiaztatzeke agiriaren kopiak (lan-kontratuak, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak). Dena dela, gastu eta faktura horiek Urola Kostako Udal Elkartearen udalerrietan egonaldia egin duten haurrenak izango dira. Bestalde, egitasmoak izan dituen diru-sarrera guztiak adieraziko dira, beste diru-laguntzak barne.
- Egindakoaren berri emateko agiri osagarriak: prentsa aipamenak, bestelako euskarriak eta abar.
- Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta daudela egiaztatzeke agiriak.
- Beste laguntza edota diru-laguntza batzuk lortu diren edo ez diren adierazten duen zinpeko aitortpena.



XIII. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA: ITZULKETAK

18. artikulua.

1. Jasotako kopurua (osoa edo zatia) itzultzeko eskatuko da (eta atzerapenengatiko interesak ere bai horrela balitz) hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Jasotako diru-laguntzaren erabilera ez egiaztatzea ezarritako eran eta epean.
- b) Diru-laguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzetan datuak edo agiriak faltsutzea edo ezkutatzea.
- c) Diru-laguntza emateko oinarri den helburua ez betetzea, oso-osorik edo zati batean. Ez betetzea kontsideratuko da, hasiera batean diru-laguntza emateko onartu diren jarduerak edo programen %50etik behera egitea.
- d) Organo eskudunaren kontrol eta jarraipen jarduerari uko egin edo oztopoak jartzea.

Halaber, emandako diru-laguntzak (bere horretan nahiz beste administrazio, erakunde publiko nahiz pribatuek emandako diru-laguntzak batuta) burututako jardueraren kostua gainditzen baldin bada, onuradunak itzuli egin beharko du kostuaz gain jasotako kopurua.

2. Udal Elkarteak zehazten dituen epeetan itzultzen ez bada, behartze bidez eska daiteke.

XIV. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA ERREKURTSOAK

19. artikulua.

Oinarri-arau hauek interpretatzen sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia era egokian bideratzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko eskumena Udal Elkarteko lehendakariari dagokio, oinarriotan ezarritakorekin bat etorritik.

20. artikulua.

Administrazio-bideari amaiera ematen dioten oinarri-arau hauek onartzeko erabakiaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsoren aurretik, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri-arau hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita bi epeok. Hori egin daiteke, bidezko jotzen den beste edozein egintza bideratu edo errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

XV. DEIALDIAREN INGURUKO ERABAKIAK

21. artikulua.

Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak oinarri-arau hauek onartu eta deialdia egiten du. Halaber, lehendakariari eskuordetzen dizkio diru-laguntzen erabakia eta diru-laguntzak kitatzeko erabakiak.

Zarautzen, 2015eko martxoaren 25ean

Amaia Guruzeta Aizpurua
Lehendakaria



ERANSKINA: ESKABIDEA EGITEKO EREDUA

**ELKARTASUN KANPAINA ETA EGITASMOAK BIDERATZEKO
2015EKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA**

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN edo ORDEZKARIAREN DATUAK:

Izen-abizenak: NAN:
Helbidea:
Telefonoa: Telefono mugikorra: E-maila:

ELKARTEAREN DATUAK:

Izena: IFK:
Helbidea:
Telefonoa Telefono mugikorra: Faxa:
E-maila: Web helbidea:
Banketxea: Kontu zenbakia:

EGITASMOAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

AURKEZTUTAKO AGIRIAK:

- a) Eskatzailearen edo ordezkariaren NANren fotokopia.
- b) Elkartearen IFKren, eratzeko aktaren eta estatutuen fotokopiak.
- c) Egitasmoa azaltzeko memoria.
- d) Gastu eta sarreraren aurrekontu zehatza.
- e) Zinpeko adierazpena, diru-laguntza eskabide guztien berri ematen duena.
- f) Zinpeko aitortpena, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluko egoeretan ez dagoela adierazten duena.
- g) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela adierazten duen egiaztagiria.

Eskabidea aurkeztearekin diru-laguntza deialdi honen oinarriak oso-osorik eta baldintzarik gabe onartzen ditut.

_____ (e)n, 2015eko _____ ren ____ (e)an

Sinadura (elkarteko legezko ordezkariarena)



II. ERANSKINA: EGITASMOAREN MEMORIA

EGITASMOAREN IZENA

EGITASMOAREN HELBURU OROKORRA ETA HELBURU ZEHATZAK

EGITASMOAREN EDUKIA (oro har)

Egitasmoaren izena, helburuak, ekintzak, haurren jatorria, haurren egoera, aurreko urteetako egitasmoen emaitzak (bereziki Urola Kostan)...



EGITASMOA UROLA KOSTAN

Hartuko diren haurren kopurua eta jaioterria

Hartuko diren haurrak eta familiak udalerrika (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia). Haurren ardura izango duten familien titularren datuak adierazi (izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefonoa) behar dira.

Informazio eta sentiberatze ekintzak

Ekintzen egitaraua

Urola Kostako egitasmoaren KRONOGRAMA

ELKARTEAREN ARDURADUNAK ETA HARREMANETARAKO PERTSONAK Urola Kostan



BITARTEKO MATERIALAK ETA EKONOMIKOAK Urola Kostarako

GASTUEN AURREKONTUA

DIRU-SARREREN AURREKONTUA

BESTE LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZAK (eskabideak, aurreikuspenak)



III. ERANSKINA:

**OINARRIEN 7. ARTIKULUKO a) eta b) ZATIETAN
ESKATZEN DIREN AGIRIEN ORDEZKO ZINPEKO AITORPENA**

Nik, _____ jaunak/andreak, _____ NAN zenbakiaren jabeak,
_____ elkarteren (IFZ _____) lehendakari naizenez,
honakoa ADIERAZTEN DUT:

- elkarreak ez du inolako aldaketarik izan Urola Kostako Udal Elkarteren eremuan bideratzen diren solidaritate kanpainak eta egitasmoak diruz laguntzeko 2014ko diru-laguntza deialdiaren oinarrien 7. artikuluko a) eta b) zatietako datuetan.
- elkarreak Urola Kostako Udal Elkarteari eskabidea aurkeztu zion ekitaldian, eta eskabidearekin batera aitorten honek ordezkutzen duen dokumentazioa aurkeztu zuen.

(Lekua, data eta sinadura)



IV. ERANSKINA: EGITASMOA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

EGITASMOAREN IZENA


BURUTUTAKO EGITASMOA ETA EGINDAKO JARDUERAK

Hartutako haurren kopurua eta haurren jatorria

Hartutako haurrak udalerrien arabera. Haurren ardura izango duten familien titularren datuak adierazi (izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefonoa) behar dira.

Informazio eta sentiberatze ekintzak

Jardueren egitaraua



EKINTZEN KRONOGRAMA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

GASTUAK

DIRU-SARRERAK

BESTE LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZAK